



423/2015 Ebazpena, 2015eko abenduaren 22koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza baliabideetako zuzendariarena. Horren bidez agintzen da argitaratu behar direla Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web orrian 2. Lehentasuneko aldi baterako kontratazioaren behin-behineko zerrendak, lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda modura (Aldi baterako kontratazio zerrendak 2014), 5 kategoriei dagokienez (berriro ireki zirenak): Informatikako Goi-Mailako Teknikaria; Euskararen Normalkuntzako Goi-Mailako Teknikaria; Euskararen Normalkuntzako Erdi-Mailako Teknikaria; Segurtasun eta Higienearen Prebentziorako Goi-Mailako Teknikaria eta Segurtasun eta Higienearen Prebentziorako Erdi-Mailako Teknikaria.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluak aldi baterako kontratazioko zerrendak sortzeko eta kudeatzeko modua arautu zuen 2011ko maiatzaren 9ko Erabakian (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6koa).

Pasa den urteko abenduaren 22ko 361/2014 Ebazpenaren bitartez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza baliabideetako zuzendariak emandakoa, ireki egin zen 2014ko aldi baterako kontratazio zerrendetan izena emateko epea (2015eko urtarrilaren 8tik 30era), 2011ko Enplegu Publikorako Eskaintzan deitutako kategorietarako eta ireki behar izan diren beste 5 kategoriatarako.

Behin zerrendok ordenatuta, kontuan hartuta horiek sortzeko irizpideak -laugarren atalean zehaztutakoak-,

## EBATZI DUT

**Lehena.-** Agindua ematea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web orrian hauek argitaratzeko: 2. Lehentasuneko aldi baterako kontratazioaren behin-behineko zerrendak, lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda modura, zerrenda modura, 5 kategoriei dagokienez (izena emateko epea berriro irekitzeko premia zeukatenak).

Zerrenda horiek indarrean sartuko dira 2016ko urtarrilaren 15ean.

**Bigarrena.-** Ebazpen honen aurka erreklamazioa jarri dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza baliabideetako zuzendariari 10 egun balioduneko epean, ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko abenduaren 22an

  
Iz.: Jose Maria Armentia Macazaga  
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA

